

Ebazpena: R058/2023

Espedientea: E07/2017

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 1a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordea honako hauek osatzen dute: Violeta Ruiz Almendral presidenteak eta Sofía Arana Landín eta Javier Muguruza Arrese bokalek. Bada, honako hau erabaki dute:

ERABAKIA

Gipuzkoako Foru Aldundiak (aurrerantzean, GFA) gatazka planteatu du, ez dagoelako ados Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioarekin (aurrerantzean, OFPM),

RASAk zergen inguruan egindako kontsulta bati emandako ebazpena dela-eta. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 7/2017 espediente-zenbakiarekin.

I. AURREKARIAK

1.- RASAk zergei buruzko kontsulta loteslea eskatu zion 2015eko urriaren 6an Zergen Zuzendaritza Nagusiari, egiten dituen ibilgailu berriak autonomia-erkidegoen artean entregatzen dituenean BEZa non ordaindu jakiteko. Enpresa horrek Logroñon egiten du merkataritza-kudeaketa osoa, hortxe baitu egoitza nagusia, eta ibilgailuak Arabako zelai batean egoten dira gordeta, garraiatzen diren arte; hau da, Arabako zelaia ibilgailuen izakinen biltegia baino ez da.

2.- Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak (OFPM), 2016ko irailaren 21ean, zergadunaren kontsulta-idazkia jakinarazi zion Eusko Jaurlaritzaren Zerga Administrazioari, Ekonomia Itunaren 64.b) artikulua ondo erretarako, Estatuko Administrazioak emandako erantzun-proposamenarekin batera.

3.- Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak, 2016ko azaroaren 21ean, Estatuko Administrazioaren erantzun-proposamenari egindako oharrik bidali zizkion OFPMri.

4.- Maila Autonomikoa eta Tokikoa Koordinatzeko Idazkaritza Nagusiak (OFPM), 2017ko urtarrilaren 9an, Estatuko Administrazioak egindako beste erantzun-proposamen bat bidali zion Eusko Jaurlaritzaren Zerga Administrazioari zuzendariari.

5.- Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoak erantzun bat idatzi zuen (ez dakigu noiz jakinarazi zion OFPMri), adieraziz administrazioak ados ez zeudela ikusita, egokia zela espedientearen Arbitraje Batzordeari helaraztea, hark ebazpena eman zezan.

6.- GFAk, 2017ko otsailaren 22an, gatazka planteatu zion Arbitraje Batzordeari, RASAk egindako zerga-kontsulta ebatz zezan.

7.- Arbitraje Batzordeak kontsulta ebatzi zuen (7/2021 Ebazpena), 4/2017 gatazka bideratu zuenean.

II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1.- Arbitraje Batzordearen eskumena

Arbitraje Batzordeak eskumena du gatazka ebazteko, Ekonomia Itunaren 64.b) artikulua haxe ezartzen baitu Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen eginkizunei dagokienez:

«b) Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie, azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharririk egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da.

Oharririk badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administraziok ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko».

2.- GFAREN LEGITIMAZIOA

Ekonomia Itunaren 64.b) artikulua honako hau xedatzen du:

«Ekonomia-itun honetan aipatutako lotuneen aplikazioari buruz egiten zaizkion kontsultei erantzutea. Kontsultaren bat jasotzen denean, bi hilabeteko epean hura jaso denetik, kontsulta bera eta beraren ebazpen-proposamena gainerako administrazio interesdunei helaraziko zaizkie,

azter ditzaten. Bi hilabetetan inork ez badu oharrrik egiten ebazpen-proposamenari buruz, proposamena onetsizat joko da.

Oharrrik badago eta horiek onartu ezean, horien gaineko akordioa lortu ahalko dute Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordearen barruan. Nolanahi ere, aipatutako oharrak egin eta bi hilabetera ez bada akordiorik lortu, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak, baita ukitutako beste edozein administraziook ere, hilabete izango du desadostasuna Arbitraje Batzordera helarazteko».

64.b) artikulua «ukitutako beste edozein administrazioari» buruzkoa da, eta, Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan, badirudi autonomia-erkidegoko administrazioaz gain foru-administrazioak ere sartzen direla.

Izan ere, EA Eren solaskidetza Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoari ematen zaio, eta organo horretan Eusko Jaurlaritzak eta hiru foru-aldundiak daude ordezkatuta.

Ikuspegi horretatik, onargarria dirudi GFAk gatazka aurkezteko legitimitate aktiboa izatea.

3.- Prozeduraren xedea gerora galtzea

Arbitraje Batzorde honek 4/2017 gatazkaren harira erantzun zion RASAk egindako kontsultari.

7/2021 Ebazpena irmoa da, ez delako inoiz errekurritu Auzitegi Gorenean.

7/2021 Ebazpena EZK Ori bidali zitzaion, GFA bertan baitago ordezkatuta. Hain zuzen ere, horretan oinarritzen da GFAk legitimazio aktiboa daukalako arrazoia.

Hortaz, GFak erantzunaren berri izan du, eta ez dago zertan beste irizpenik eman.

Halere, adierazi nahi dugu erantzuna kontsultan oinarrituta eman zela, non ziurtzat ematen baita Arabako zelaia ibilgailuen izakinen biltegia besterik ez dela.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- 7/2017 gatazka artxibatutzat jotzea, bestelako izapiderik egin gabe, bat etorrita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 21.1 artikularekin, zeina aplikagarria baita Ekonomiaren Arbitraje Batzordearen Erregelamenduaren 8. artikularen arabera (1760/2007 Errege Dekretuak onetsi zuen erregelamendu hori), xedea gerora galdu baita; izan ere, Arbitraje Batzordeak kontsultari erantzun zion, Araugintza Koordinatu eta Ebaluatzeko Batzordeak ezin izan zuelako erabakirik hartu.

2.- Erabaki hau Ogasuneko eta Funtzio Publikoko Ministerioari, Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoari eta RASari jakinaraztea.